

Eusko (Euskal Moneta)

Euskoal Moneta irabazi asmorik gabeko elkartea jaunikako diru osagarria da **euskoa**. Elkarteko lehendakaria Xebax Christy da.^[1] Eusko 2013ko urtarrilaren 31n^[2] sortu zen. Ipar Euskal Herrian erabiltzen da.

Sarrera

Eusko Ipar Euskal Herrian –Euskal Hirigune Elkargoaren 158 udalerrietan– dabilen tokiko dirua da. Europako tokiko diru osagarri handiena da^[3]. Izan ere, 2023ko udaberrian, 4 milioi eusko zebiltzan zirkulazioan, 4.000 erabiltzaile partikularrek eta 1.300 profesionalek osatutako sarean.

Hala, 2013az geroztik, euskoak Ipar Euskal Herriko biztanleen kontsumoaren zati gero eta handiagoa birbideratzen du tokiko ekonomiarantz^[4]: zirkuitu laburak, hurbileko saltegiak, herri laborantza, merkatuak, lurraldoko elkartea, etab. Tresna kolektibo eta partekatua da, elkartasuna eta harremanak sortzen dituena lurraldoko eragileen artean.

Historikoa

Sorrera

2011n hasi ziren eusko sortzeko lanak, dozena bat militanteren ekimenez. Urtebete eta erdiko prestakuntza trinkoaren ondoren, eusko 2013ko urtarrilaren 31n sortu eta zabaldu zen. Hasieran, sarean 800 erabiltzailek eta 192 zerbitzu hornitzalek ziharduten^[5]; alta, kopuruak berehala emendatu ziren. Boluntarioen mobilizazio handiari eta prestakuntza trinkoko lanari esker, tokiko diru hori laster garatu zen: zirkulazioan jarri zen, saltzaileek, elkarteeek eta enpresek azkarki parte hartu zuten eta elkartea kide egin ziren^[6].

Euskoaren helburuak eta balioak

- **Economia birkokatzea:** lurralte jakin batean bakarrik zirkulatz, euskoak tokiko ekonomia eta bertako eragileak laguntzen ditu, eta, beraz, zirkuitu laburak garatzen ditu. Tokiko diruak, beraz, tokiko enpleguak eta hurbileko merkataritza bultzatzen ditu.
- **Trantsizio ekologikoaren azkartzea:** zirkuitu laburak garatuz, tokiko dirua funtsean ekologikoa da, eta garraioaren sektoreak eragindako berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten ditu. Gainera, berme-funtsa trantsizio ekologiko eta sozialeko proiektuak finantzatzen dituzten banku etikoetan (Crédit Coopératif, La NEF) ezarrita dago. Azkenik, euskoaren araudiak baztertu egiten ditu gizarterako edo ingurumenerako jarrera arduragabeak dituzten enpresak.
- **Euskararen aldeko konpromisoa^[7]:** euskara eremu publikoan ikusaraztea euskoaren oinarri sortzaileetako bat da. Hala, sarearekin bat egiten duten profesionalak animatzen dira, erronken bidez, besteak beste afixaketa elebiduna ezartzera eta jendearekin euskaraz hitz egiteko formakuntza jasotzera.
- **Elkarte-inguruneari laguntza eta gizarte-lotura indartzea:** birbanaketa-mekanismo baten bidez (Euskoaren % 3-ko emaitza^[8]), elkarteen ekimenak eta proiektuak babesten dira. Horrela, partikularrei tokiko diruaren erabilera areagotzeko eskatzen zaie, haien babestutako elkartea emaitza handiagoa jaso dezan. Horrek elkarte, saltzaile eta partikularren arteko parte-hartze aktiboa bultzatu eta harremanak sortzen ditu, eta, hala, lotura soziala eta elkartasuna indartzen ere.

Gertakari garrantzitsuak eusko sortu zenetik

- 2013ko urtarrilaren 31: eusko abian jartza, lehen ordainketa eta trukeekin (192 profesional eta 800 partikular)
- 2014ko abuztuaren 28a^[9]: lehen hitzarmena Euskararen Erakunde Publikoarekin
- 2017ko martxoaren 19a^[10]: eusko digitala abian jartza ("eusko digitala + euskokarta" kontu-sistema)
- 2017ko uztailaren 19a^[12]: Baionako Herriko Etxeak aho batez onartu zuen ordainketak euskoetan egin ahal izatea
- 2018ko ekainaren 2a^[13]: elkargoek tokiko dirua erabiltzeko izenpetutako akordioa. Oztopo juridikoak gorabehera, Baionako hiriak lortu zuen eusko gastuetarako erabili ahal izatea eta hori beste elkargo batzuetarako eredu da: aurrerapauso nabaria dakar, Frantziako elkargoek tokiko diruak erabili ahal izateko.
- 2018ko urriaren 7a^[14]: milioi bat eusko baino gehiago zirkulazioan.
- 2020ko ekainaren 18a^[10]: euskopay ordainketa-aplikazioa abian jartza.
- 2021eko azaroaren 14a^[10]: hiru milioi eusko baino gehiago zirkulazioan.



Ipar Euskal Herriko diruaren urteurrena ospatzen duen urteroko herri festa: Eusko Eguna^[11].

- 2023ko apirilaren 15a: Eusko Eguna - Euskoaren 10. urteurrena - 1.500 pertsona.

Euskoaren funtzionamendua eta erabilera

Eusko Europako tokiko dirurik handiena da. Lau milioi eusko baino gehiago dabilta zirkulazioan, eta eusko 1.300 profesional eta 4.000 partikularren artean trukatzen da (2023ko apirila). Tokiko diru osagarria da, hots, euroaren “parekoa” da, eusko bat euro bat delako. Erabili ahal izateko, beharrezko da Euskal Moneta elkartearen kide izatea, partikularra nahiz profesionala izan.

Ordaintzeko moduak

- **Billeteak.** Euskoaren ordainketa-modu klasikoa. Billeteak balio desberdinak dira: 1 (urdina), 2 (gorria), 5 (grisa), 10 (horia) eta 20 (morea)^[15]
- **Kontu digitala eta euskokarta.** 2017az geroztik, badago eusko kontu bat irekitzeko aukera (inolako gastu gehigarririk gabe), eta kontu horretatik tokiko diru formatu digitalean erabil daiteke euskokartaren bidez (ordainketa-txartela). Gainera, erabiltzaile partikularrek eta profesionalek beren kontutik beste eusko kontu batera euskoak transferi ditzakete. Azkenik, truke-bulegoetan beren eusko kontutik euskoak atera ditzakete: adibidez, erabiltzaile batek truke-bulego batean 50 eusko ateratzen baditu, bere eusko kontutik 50 eusko kenduko dira, eta truke-bulegoak 50 eusko emango dizkio dirutan.
- **Euskopay.** 2020az geroztik, tokiko moneta erabil daiteke telefono adimentsuaren bidez, euskopay ordainketa-aplikazioari esker.



Erabilera-eremuak

- **Partikularrak:** edonor izan daiteke elkartearen kide, 24 €/eusko, 36 €/eusko edo 60 €/eusko (aukeran) ordainduta. Abantailazko prezioa aplikatzen zaie langabetuei, gutxieneko laguntza sozialen onuradunetik eta ikasleei. Elkarte kide izatean, partikularrak aukeratzen du babestu nahi duen eta sarearen parte den elkarre bat. Helburu nagusiak tokiko kontsumoa sustatzea, euskal kultura eta, bereziki, euskara biziarratzera dira.
- **Enpresak:** egoitza soziala Ipar Euskal Herrian duen profesional bat elkartearen kide izan daiteke. Horrela, profesional horrek euskoaren erabiltzaileei erosketak euskoetan ordaintzeko aukera eman diezaike. Ondoren, enpresek euskoak berrerabilitzen dituzte beren hornitzaleak edo langileen edota nagusien soldaten zati bat ordaintzeko. Edo, bestela, beren euskoak berriro euroetan ematen dituzte (baina, orduan, % 5eko komisioa ordaindu behar dute). Helburu nagusia tokiko jarduera ekonomikoak sustatzea da.
- **Elkartek:** elkartek ere elkarre bat kide izan daitezke, eta diru-iturri gehigarri bat desblokeatzeko aukera izan dezakete (% 3-ko emaitza). Helburu nagusia tokiko elkarteen sarea lagundu eta fintzea da.
- **Elkargoak^[16]:** udalerri bat Euskal Monetaren kide egin daiteke, baina beste modu batera. Lehenik, herriko kontseiluan Euskal Monetaren kide egitearen alde bozkatu behar du. Gero, kide izatearen ondorioz, urtesaria ordaindu behar du (ez da dirulaguntza). Azkenik, Herriko Etxeak eta Euskal Monetak hitzarmena izenpetu behar dute. Horrela, euskoak erabili ahal izango du ordainbide gisa bere herriko zerbitzu publikoetan (adibidez, igerilekuak) edota bere gastuak ordaintzeko (adibidez, hautetsien ordainsariak). Helburu nagusia diru publikoa lurraldean mantentzea da.

Berezitasunak

- **% 3ko emaitza^[8].** Tokiko diruaren elkarteko kide bakoitzak sareko elkarte bat babestea aukera dezake. Eta azken horrek 30 babesle dituenean, Euskoaren % 3-ko emaitzaren baliabidearen onuradun bihurtzen da, eta urtero bere babesle guztiak euskoetan trukatu euroen % 3 jasotzen du. Emaitza hori ez da trukearen zenbatekotik kentzen, gehigarri gisa ematen da; adibidez, 100 euro trukatzen dituen erabiltzaileak 100 eusko jasoko ditu eta Euskal Monetak 3 eusko ordainduko dizkio babestutako elkarteari.
- **Oporrak euskoetan^[17]:** Euskal Herrira oporretara datozen pertsonek oporretako eusko kontu bat ireki dezakete, tokiko diru erabiltzeko. 2 €-ko kide saria ordainduko dute, eta kontua gehienez ere bi hilabetez izango da baliagarri.
- Euskoetan trukatutako euro guztiak berme-funts batean gordetzen dira. Funts hori espekulazio asmorik gabeko bankuek gordetzen dute, hala nola La Nef eta Crédit Coopératif^[18] bankuek. Berme-funts horren helburua zirkulazioan dabilgtzan eusko guztiak itzuliketa bermatzea da, behar izanez gero. Horrela, euskoetan trukatutako euroak modu seguruan gordetzen dira eta diru horrek trantsizio ekologiko eta sozialeko proiektuak finantzatzen ditu.



Euskal Monetako langile taldea

Antolaketaren egitura

Langile talde iraunkor batek osatzen du elkartea. Zuzendari nagusi batek zuzentzen du eta berrogeita hamar bat boluntario inguruk laguntzen dute. Elkartearen zuzendaritza-organoak kudeatzen dituztenak dira boluntarioak.

- Biltzar Nagusia: urtean behin biltzen da batzordeak aukeratzeko, kontuak onartzeko eta norabide orokorrak finkatzeko.
- Proiektuko alderdi interesdun guztiak ordezkatzen dituen Batzordeen multzoak, Gidaritza Batzordeak eta Onespen Batzordeak osatutako instantzia erabakitzaleak.

Eginkizunal eta erantzukizunak

Euskal Monetak hainbat funtzi eta erantzukizun betetzen ditu, tokiko diruaren proiektuaren akuilataile gisa:

- Tokiko diruaren zirkulazioa kudeatzea;
- Tokiko ekonomia sustatzea (elkarreko-bizitza, lurraldetako jarduera ekonomikoak);
- Elkartasuna eta lankidetza sustatzea;
- Tokiko ekonomiari eta bere xedeei buruz formatzea, hura laguntzea eta haren aukilatzailea izatea;
- Euskoari buruz sentsibilizatzea eta euskoia sustatzea.

Euskal komunitatean eta tokiko ekonomian duen eragina

Elkartea

- 2022an, 60.000 euro baino gehiago eman zitzaizkien elkarteei Euskoaren % 3-ko emaitzaren baliabideari esker (250.000 euro baino gehiago euskoia sortu zenetik)^[19]
- 58 elkartek jaso ahal izan dute diru-iturri gehigarria Euskal Monetari esker (2022an)

Partikularrak

- Banakako erabiltzaileen % 74k adierazi du dagoeneko enpresa bat aukeratu duela bereziki euskoia erabiltzeko aukera ematen duelako (Sol inkestatik ateratako datuak).
- Ia 2 milioi eusko trukatu zitzuten partikularrek 2022an^[20]

Enpresak

- Euskoaren sareko profesionalen % 56k tokiko hornitzairen berri bat hartu dute gutxienez beren euskoak berrerabilzeko^[21]

- Euskoaren kide egin diren enpresen % 84k ez ditu inoiz euskoak eurotan berriz eman

Elkargoak

- 36 udalerri Euskal Monetaren kide egin dira, eta baita Euskal Hirigune Elkargoa ere.^[22]

Erreferentziak

- ↑ «Amankomunak: baliabide partekatuak. Zer nolako erronkak?» (<https://www.eke.eus.eu/euskal-etnopoloa/ikergaiak/ondarea-eta-sorkunzia/amankomunak-baliabide-partekatuak-zer-nolako-erronkak-1>) EKE (Noiz kontsultatua: 2023-08-11).
- ↑ (Frantssez) «Le Pays basque lance sa propre monnaie» (https://www.huffingtonpost.fr/actualites/article/eusko-le-pays-basque-lance-sa-propre-monnaie_14577.html) Le HuffPost 2013-01-31 (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Enbata. (2023-04-10). «« L'eusko est devenuela plus importante monnaie locale d'Europe »» (<https://www.enbata.info/articles/leusko-est-devenuela-plus-importante-monnaie-locale-de-europe/>) Enbata (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Harri. «POURQUOI ADHÉRER ?» (<https://www.euskalmoneta.org/7-bonnes-raisons/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) «L'Eusko» (<https://www.udalbiltza.eus/fr/hartueman/eusko>) Plone site (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Dante. «L'origine de l'Eusko» (<https://www.euskalmoneta.org/faq-items/lorigine-de-leusko/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ Txantiloï:Fr-CA Boulian, Myriam. (2021-11-28). «L'eusko, une monnaie à la défense de la langue basque» (<https://www.lapresse.ca/international/europe/2021-11-28/l-eusko-une-monnaie-a-la-defense-de-la-langue-basque.php>) La Presse (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ a b (Frantssez) Dante. «Le Don 3% Eusko» (<https://www.euskalmoneta.org/faq-items/le-3-assos/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ «Monnaie basque : l'Eusko fête 10 ans au service de son territoire» (<https://www.baskulture.com/article/monnaie-basque-leusko-fete-10-ans-au-service-de-son-territoire-5631>) BasKulture (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ a b c (Frantssez) Ambre. (2021-11-16). «3 millions d'eusko en circulation !» (<https://www.euskalmoneta.org/2021/11/16/3-millions-d-eusko-en-circulation/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Carricano, Iban. «Eusko Eguna - samedi 15 avril à Espelette» (<https://www.euskalmoneta.org/eusko-eguna-samedi-15-avril-a-espelette/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) «Monnaie locale. Bayonne peut-elle payer en eusko ?» (<https://www.letelegramme.fr/france/spanmonnaie-localespan-bayon>) ne-peut-elle-payer-en-eusko-3175959.php) Le Télégramme 2018-01-12 (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Moneta, Euskal. «Paiements en eusko par les collectivités» (<https://www.euskalmoneta.org/paiements-en-eusko-par-la-ville-de-bayonne-appel-des-elus/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Dante. (2018-11-07). «<https://www.euskalmoneta.org/2018/11/07/le-billet-de-leusko-750-000-eusko-en-circulation-2/>» (<https://www.euskalmoneta.org/2018/11/07/le-billet-de-leusko-750-000-eusko-en-circulation-2/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Dante. «Quels sont les moyens de paiement disponibles ?» (<https://www.euskalmoneta.org/faq-items/quels-sont-les-moyens-de-paiement-disponibles/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Harri. «COLLECTIVITES» (<https://www.euskalmoneta.org/collectivites-2/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Et si vous passiez vos vacances en Eusko ? – La monnaie locale du Pays Basque. (<https://vacanceseneusko.org/>) (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Harri. «Un eusko compte double» (https://www.euskalmoneta.org/eusko_compte_double/) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Ambre. (2023-01-06). «L'Eusko vous souhaite une bonne année 2023 et fait le bilan de l'année écoulée !» (<https://www.euskalmoneta.org/2023/01/06/eusko-vous-souhaite-une-bonne-annee-2023-et-fait-le-bilan-de-lannee-ecoulee/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Harri. «L'Eusko en chiffres» (https://www.euskalmoneta.org/eusko_en_chiffres/) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) Carricano, Iban. (2022-01-19). «Nouvelle édition d'Eskuz Esku, l'annuaire des fournisseurs du réseau Eusko !» (<https://www.euskalmoneta.org/2022/01/19/nouvelle-edition-deskuz-esku-l-annuaire-des-fournisseurs-du-reseau-eusko-2/>) Eusko (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).
- ↑ (Frantssez) «L'Eusko, monnaie locale du Pays basque, souffle ses 10 bougies» (<https://presselib.com/article/eusko-monnaie-locale-pay-s-basque-anniversaire>) presselib.com 2023-03-08 (Noiz kontsultatua: 2023-08-07).

Kanpo estekak

- Euskal Monetaren ataria (<http://www.euskalmoneta.org>)
- Herrikoaren ataria (<http://www.herrikoa.com>)

Autoritate kontrola	Wikimedia proiektuak ·  Datuak: Q16517212 ·  Multimedia: Eusko (https://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Eusko) / Q16517212 (https://commons.wikimedia.org/wiki/Special:MediaSearch?type=image&search=Eusko)
---------------------	--

"[https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Eusko_\(Euskal_Moneta\)&oldid=9884349](https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Eusko_(Euskal_Moneta)&oldid=9884349)"(e) tik eskuratuta